



X. LAZKAOKO SAN SILBESTREA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Antzar Korrikalariak taldea eta Lazkaoko Udalak, X. LAZKAOKO SAN SILBESTREA proba antolatuko du 2022ko abenduaren 31 eguadiako 12:30etan.

Hauek dira, oro har, lasterketaren datuak: 5,3 kilometroko lasterketa herrikoa Lazkaoko herri ingurua.

Lasterketa honetan parte hartu ahal izango du 14 urte beteak dituen pertsona oro.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duen orok parte hartu ahal izango du, kategoria, sexua edo nazionalitate a kontuan hartu gabe eta atleta federatua izan edo ez.

Parte hartzaile kopurua gehienez 500ekoa izango da.

Lasterkari bakoitzak bere erantzukizun pean parte hartzen du eta proba egiteko behar besteko maila fisikoa izango du.

3. ARTIKULUA – IZEN EMATEAK

Izen emateak abenduaren 1ean irekiko dira, eta abenduaren 29an gaueko 20:00tan itxiko dira. Beti ere, lehenago 500 dortsalak betetzen ez badira.

3.1 – IZEN EMATE MODUA

Izen ematea internet bidez, doain, egin ahalko da helbide honetan: www.kronoak.com abenduaren 1etik aurrera. Internet bidezko izen emateak abenduaren 29an (20:00tan) itxiko dira eta bezperan eta proba egingo den egun berean izen emateak egin ahal izango 10€ ordainduta.

Horretarako, abenduak 30ean dortsalak banatzeko ordutegian eta abenduaren 31ean, berriz, goizeko 10:00tatik lasterketa hasi baino ordu ba lehenago arte egongo da izena ematea irekita.

Aurrez izena ematea doain da parte hartzaile bakoitzarentzat. Abenduak 30 eta 31n izena emateko 10€ ordaindu beharko ditu pertsona bakoitzak.





4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Dortsala jaso ahal izango da, ondorengo egun eta orduetan:

ABENDUAK 30, OSTEGUNA: 11:00-13:00 (KIROLDEGIAN)

ABENDUAK 31, OSTIRALA: 10:00 -12:00

NAN txartela aurkeztea derrigorrezkoa izango da dortsala Jasotzeko.

5. ARTIKULUA - LASTERKARIAREN POLTSA

Lasterkari guztiek ondorengo jasoko dute: dortsal- txipa, lasterketako elastiko teknikoa, edaria, jatekoa eta zozketa orria, non zerbait irabazi duen edo ez jarriko duen. Elastikoak dortsal-txiparekin batera banatuko dira. Zozketarako hainbat produktu egongo dira, helmugara iristen diren parte hartzaile orori poltsa bat banatuko zaie, eta han izango dute orri batean idatzita zer suertatu zaien.

6. ARTIKULUA - DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Irteeran eta helmugan kontrolak egongo dira. Lasterkari guztiek derrigorrez alfonbretatik pasa beharko dute. Probatik automatikoki deskalifikatu egingo dira lasterkari hauek guztiak:

1. Ibilbide osoa egiten ez dutenak.
2. Dortsaleko publizitatea aldatu edo estaltzen dutenak.
3. Beste lasterkari batena den dortsala edo txipa daramatenak.
4. Edizio honetarako eman zaion jatorrizko dortsala ez daramatenak.
5. Helmugan dortsalik gabe sartzen direnak.
6. Epaileen edo antolakuntzako jendearen aginduei kasurik egiten ez dienak.

Gogoratzen da baita ere erabat debekatuta egongo dela ibilbidean motordun ibilgailuak edo bizikletak ibiltzea antolakuntzakoak ez badira.

7. ARTIKULUA - PARTE HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiek istripuen aseguru-poliza baten estaldura izango dute. Proba egite hutsaren ondorioz gerta daitezkeen istripuak estaliko ditu aseguru horrek eta inoiz ez ezkutuko gaixotasun edo akatsa, arduragabekeria, zabarkeria, legeak eta arauak ez betetzeagatik, hala nola lasterketa egingo den tokira joateko eta handik irteteko joan etorrietan sortutako istripuak direnean.





8. ARTIKULUA - MEDIKU LAGUNTZA

Ibilbidean zehar mediku eta anbulantziaren laguntza egongo da. Helmugan ere mediku laguntza egongo da. Antolakuntzak lasterkariei gomendatzen die proba egin baino lehen mediku azterketa bat egin dezatela eta kirol proba egiteak dituen arriskuak onartu ditzala parte hartzaile orok.

9. ARTIKULUA- SARIAK

Lehenengo emakumezkoa/gizonezkoa Garaikurra
Bigarren emakumezkoa/gizonezkoa Garaikurra
Hirugarren emakumezkoa/gizonezkoa Garaikurra

Herriko lehenengo emakumezkoa/gizonezkoari garaikurra

Frogan azkeneko emakumezkoa/gizonezkoa bukatzean saria

Sariak ez dira pilatuko

10. ARTIKULUA - DUTXA, ARROPAK JASOTZEA ETA APARKALEKUA

Dutxak eta aldagelak Joxe Miel Barandiaran Kiroldegian egongo dira, irteera eta helmuga puntuaren ondoan dagoena. Bertan utzi ahalko dira arropa edo bestelako poltsak lasterketa garaian.

11. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, izen ematea egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Antzar Korrikalariak Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izen ematea egin dutenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Antzar Korrikalariak Taldeak duen helbidean (triantzar@yahoo.com).

Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.

